

MUGAGABEA

Izendatzen duguna **EZEZAGUNA** denean, edo **EZ ZEHATZA** denean mugagabea deklinatuko dugu. Ez da singularra , ezta plurala ere

NOIZ erabiliko dugu mugagabea?

1. Izen bereziak. **Maiderekin egin du. Xabirekin noa.**
2. ZER, ZEIN, ZENBAT galdetzaileak. **Zein ordu da? Zenbat sagar nahi dituzu?**
3. Zenbatzaile zehaztuak. **Hiru lagun etorri dira. Zazpi menditara igo gara**
4. Zenbatzaile zehaztugabeak (zenbait, hainbat, hainbeste, makina bat, asko, gutxi...) **Zenbait klasetan ez dago klarionik. Makina bat katuri gustatzen zaio**
5. Partitiboarekin (-(r)ik) **Ez dut ogiRIK erosi. Kaferik nahi?**
6. Zerez kasua gehienetan. **Eskuz egin dut. Kotxez eramango zaitut**
7. Zenbait esapidetan: likido izenekin ur – esne – euri – olio – ardo; bizitzaren aroetan: ume- gazte- zahar – txiki ; su- eguzki- lo – ezker – eskuin – toki- meza. **Sutara bota ditut apunteak. Gaztetan gerran ibili zen aitona**
8. Predikatiboarekin: bihurtu, izen datu , hautatu aditzekin. **Lehendakari hautatu dute.**

HUTSUNEAK BETE

1. Idatzi al diozu Unax..... bere agendan?
2. Zein mendi..... jaitsi zineten parapentez?
3. Gela horretako bi ikasle kanporatu dituzte
4. Noiz itzuliko dizkiozu elurretako botak Igor.....?
5. Ba al duzue bazkaltzeko toki libre.....?
6. Oxfordeko zenbait zientzialari..... ustez hori ez da egia
7. DBH3. ikasmailetan ordezkari..... aukeratu dute
8. Apaingarri horiek guztiak esku..... egin ditut
9. Aitonari perretxiko..... joatea gustatzen zaio
10. Goizero gosaltzeko ogia esne..... bustitzen dut
11. Ez dizut inolako gezur..... esan, zuk, aldiz, gezur asko esaten dituzu
12. Zenbat adiskide..... joango zara hondartzara?
13. Kutsadurak edozein gizaki..... du eragin negatiboa
14. Ez da komenigarria edozein pertsona..... dena sinestea
15. Zein kaiola..... ihes egin zuen lehoiak?
16. Hainbat arrazoi..... ez dut zure azalpena sinesten
17. Ama nirekin haserretu da eta su..... jarri da
18. Zein lagun ekarri dizkizu erosketak?
19. Jokin..... baserriko baratzeak dira tomate hauek
20. Gatza ur..... sartzen baduzu, urtu egingo duzu
21. Hamaika buruhauste eman digu talde horrek

22. Komikigilea zenbait marrazkilari ospetsu..... oinarritu zen lana
burutzeko
23. Zein liburu..... irakurri duzu informazio hori?
24. Edozein hiri..... joan gaitezke eguna pasatzera
25. Bi langile..... izan dute istripua
26. Ba al dakizue auzoko zein denda..... egin dute lapurreta?
27. Makina bat lagun..... portaera ez da ulergarria
28. Zer odu..... zer ordu..... egongo zara institutuan?
29. “ Euri..... dantzan” abestia ikaragarri gustatzen zait
30. Zein seme..... erosi behar duzu arropa? Joanesentzat?
31. Zenbat auzo..... daude kultur etxeak?
32. Hiru iturgin.....behar izan dute etxeko hoditeria
33. Amuarrainak harrapatzeko ur..... sartu behar da.
34. Ederki asko geunden eguzki..... !
35. Berrogei kilometrota..... dago hurrengo gasolindegia
36. Urrun bizi zara ! Toki.....!
37. Obelix edabe magikoan erorita indartsu.....bihurtu zen
38. Oraindik lo zaudela dirudi
39. Hiru seme-alaba..... baino ez zituzten izan
40. Norbait..... hitz egin beharko duzu arazo horretaz